ZER
ALDIZKARIA
415. zenbakia
2015 LORAILLA

Bizkaitarrei Bizkaieraz

www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com



KRISTOBAL KOLON, NAFARROAKO IVn KARLOS ERREGEAREN Semea izan ote zan?

BIDARGIA
Joxemari Murua "Arazpetik"

Euskalerrian euskeraz
EUSKERAZALEAK

2015-2016 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 48. IKASTAROA
IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak
Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

48. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak
Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak
ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA
Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO
Urrutizkina : 944 235 322
info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille
BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ISSN: 1132 - 1350
Lege gordailua: BI-1452-85

BEGOÑAKO AMATXUREN IRUDIA

Kondaira

Lenago beste eraikin batzuk izan ziran. Gaurko Basilika XVI mendekoa da, Sancho Martinez de Arregik diseñatua. Bere iru naben eraikuntza XVII. mendean amaitu eben, au da, 1511 an asi zanetik mende bat iraun eban. Eraiki eben bitartean gotiko estiloa garatu eben eta Gil de Hontañonek egindako aurrealdea beste zatiak ez bezelako da.

XIX.mendean, Basilikak Bilboko arresia osatu eban. Izan be Zumalakarregi jeneral karlista bertatik urrean zauritu eben. Gudak erabat kaltetu eban eraikiña. Ori zala eta dorrea zein fatxadaren zati bat Jose Maria Basterrak zarbarritu eban 1902 eta 1907 bitartean. Zenbait zauritu ziran. Juan Dominguez falangista ezaguna eriotz zigorra jaso eban ekintza au ekiteagaitik.

Kalteak zarbarrituteko lanak 1993ko irailletik 1094 ko ekaiñera iraun eben, garbitu zituztenak. Kanpain diorreak 24 kanpai dauz, astunena tona bateakoa izanik.

Kanpaiak 1922an Zuitzako Sumuizwalden egin ebezan eta zazpi doñu ezbardin joten dabez.

BASILIKA TA SALBEA.

Bilboko Salbe auzoaren izena, ortik portura etozan mariñelak, Basilikaren lenengo ikuspegia ebelako jatorko. Bere bidaia amaituta egoela eskertzeko, Begoñako Andra Mariari Salbe bat esaten eutsoen.

JAIAK. Basilikaren jau nausiak abustuaren 15 ean (Mariaren Jasokundea) eta Urriaren 11 (Begoñako Andra Maria) ospatzen dabez.

Bilbao aldean eta Bizkai osoan Basilikara erromes joateko oitura dago. Alan San Juan Laterango Basilikaz lotuta dagonez barkamen osoa lortzeko aukera dabe.



Francisco Mendieta, (1607). Ezkontza bat

1640 erretaula

Erromeria Begoñan

BEGOÑAKO AMA GIJON-GO ZAINDARIA

Begoñako Andra Mariaren irudia Gijon Uriaren Zaindaria da ta Elizako kriptan dago entronizaturik.

Antziñako leiendak diñosku euskaldun arrantzale batzuk Terranobako uretan lanean ebiltzanean sekulako ekaitzak arrapatu ebazala. Bizitza galtzeko arrizku larria ikusirik Bizkaiko Zaindari Begoñako Amarengan jo eben laguntza eske ta eskeñi eutsoen Eliza bat eraikiko ebela aurrenekoz sartuko ziran kaian-portuan.

Bizirik sartu ei ziran Gijonen eta bertan eraiki eben gaur egun ezagutzen dan San Lorenzo ondartzan.

Azkar edatu zan errian Begoña Amaganeko zaletasuna euskaldun asko Portuko lanetan ziarduelako. XVII mendean Fuente Vieja muño ganean kokaturik egoan eta uriko Zaindartza onartuta eukan. Bere jaia ospatzeko Abuztuko 15a aukeratu zan. Fuente Viejako auzoari Begoñako Auzoa emon eutsoen izentzat.

Begoñako Amaren irudia elizako kriptan aurkitzen da, ainbat santu ta santa irudien artean, zuri eder jantziakaz bere Jasokundea adieraziz, naiz eta Begoñako Amaren oizko irudiaren antzekotasunik ez izan. Kripta otoitz leku lez erabilten da.

Elizako aldare nagusian Kurutze ta Sagrarioagaz batera kriptako irudiaren ordezko bat agertzen da bear bada itxura ederragoagaz. Zaindaritzako jai ta ospakizun gorengoak jasotzen dauazana.

Abuztuaren 15 ko 12 tan Meza Nagusia ospatzen da erriko agintari aldunen aurrean.

Asturiasko erri usaiña emoten dautso egun orreri gaita ta danbolin soñu bai ta lurrak eskeintzen dauzan frutu, janari ta edari berezik.

Dantza Prima egingo dabe Portuari begira atzerritarren oroimenez, "Restallon" erritar oituragaz ta betiko gau zuziriakin jaiak amaituz.

Begoñako Andra Maria Tenerifeko Almacigan

1.945 an gazte talde bat Bilbotik Konpostelarantza doa itxasontzi batean. Alango baten gazte bateri (izenez Martin Valle García) bururatu jakon Begoñako Ama Birjiñaren bost estampa, botilla baten sartu ta itxasora jaurtitzea.

Ona emen erromesen ziurtagiriaren atzekalden idatzitakoa: "1948 abuztuko 27 an. Bilboko Ekintza Katolikako 35 gazte taldea Konpostelarantza Aragoi itxasontzian bideratuz, agurtzen dabez mezu onen aurkitzaleak, Jaunari eskatuz egun baten zeruan alkartu al izatea".

Urte bete geroago (1949-jorrailleko 29an) zorioneko botillatxua Tenerifeko Almacigako ondartzara eldu zan.

Inguruko baserritar batzuk ikusi eben eta barrukoa ikertu gurean Parroko zanaren eskuetan ipiñi eben. Ain zuzen be, Parroko Jauna Jesusen Lagundikoa zan eta bilbotarra, jatorra ta Begoñako Amaren zale sutsua. Izenez, Luis Egiraun. Laster askoan zabaldu eban bilbotarren artean Begoñako Amaren irudiaren aurkikuntza Almazigako ondartzean. Bilbotar mariñelak Ama Mariaren zale ba ziran, ez gitxiago Alamacigan ondartza inguruko arrantzaleak. Alan ba mirarizko gertakizun lez onartuaz, Begoñako Irudiaren bardintsu egitea eskatu eutsoen Larrea Jauna irudigilleari.

Kostu andiko lana, baña mesedegille bikañen eskuzabaltasunez ordaindu ziran irudia, bitxi ederrezko jantziak, zillarrezko peana, urrezko itargi adarra, Birjiñaren makilla ta Ama Semearen burestunak.

Irudigilleak Sendeja kalean zeukan lantegian irudia osotu ostean ikusle ta zale txaloen artean Santurtzeko nasaraño eroan eta Urkiola Mendi itsasontzian sartu 1950-05-2an.

Egun batzuk geroago Santa Kruz garrantzizko potura eldu zan. Arrakasta andiko arrera egin eutsoen erritarrak eta jarraitzale ugari artean eroan eben babesa izango eban baselizaraño.

Urtero ospatzen da Begoñako Amaren jai ederra jorrailleko azken igande-domekan

EGUNAK

KLAUDIOK
AGURAIÑEN, 2015.03.15

*Patxikorena

Baso ondoan dago
gure baserria,
aurtengo negutean
edurrez jantzia.
Edurretan lore bat
gaur dot ikusia,
kolore ta usain gozoz
txit arrigarria:
Zu zaitugu, Patxiko,
loretxu bitxia.

*Juanitana

Guztiok gure geunke
luzaroan bizi,
gorputza osasuntsu,
burua txit argi.
Alan zengozan, Juani,
pozik eta amesti,
baña uste bakoan,
YON jatzun igesi.
Zeruan gaitezela
zorontsu ikusi.

*Teresana

Gauza miragarria
ikusten doguna:
apur bat urrintxuen
ortzadar txukuna.
Pozik onartzen dogu
esan nai deuskuna:
denbora txar ostean,
datorrela ona.
Zugaz, be, Tere maite,
dator zoriona.

*Migelena

Beñola sarri jaten
genduzan gaztañak,
gaztañondo arbolak
ekarritakoak.
Gaztaña erreak ziran
danboliñekoak,
txipli ta txapla eginda
poztuaz jatunak.
Gaztañen ordez, Migel,
milla zorionak.

*Marirena

Urteak urteari
eiten deutso bultza,
tipi-tapa ibilliz
doa aurrerantza.
Batzutan aldazbera,
alaituz biotza,
askotan aldazgora
neketuz gorputza.
Beti daukozu, Mari,
Jaunaren laguntza.

*Mari Karmenena (+)

Amets asko eginda
itxartu naz goizez,
lenago alaitsu-ta
gaurkoan negarrez.
Lora bi giñan pozik,
txorta bat egiñez,
gaurtik aurrera, baña,
illun ta bakarrez.
Mari Karmen maitea,
agur, muxu batez.

Bidargia

Joxemari Murua "Arazpetik"

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2014ko sari leiaketa. Bigarren saria

SARRERA

Aitona kontu-kontari, billobatxoak inguratzen dutelarik, bera ere ume izan zen garaitik asita ortxe ari zaigu, ibil bide orretan, kontu-kontari. Garaian garaikoak azalduz.

Eta asteko onela dio:

● Leen umeentzako ipuiak, " Txano gorritxo", Edurne zuri eta zazpi ñañoak"; eta orien antzekoak izaten ziren. Orain ordea, zenbait umeri, adin batez gero, eta zuek koxkortu xamarrak ere bazerate, ipuin oriek iñozokeriak ere baderitzete. Umeak eta gaurkoak batez ere, jakitunak ere izaten bait dira. Eta ori adierazten duena bada kanta zaar bat: Tartean onela dio: ... Bestetan ez bezela, gaur gazteria bai, bai, amaren sabeletik dator ikasia"

Orduan zuei dagokizuenez, tarteka goi xamarrera ere joko dut gaian, euskera aipatuko dudanez. Argiaren sinbologia ere azalduko dizuet. Ortik ipuin onen izenburua.

1. AITONAREN UME DENBORA.

Gure aiton au, gazte-gaztetxo zelarik, umetxo bat, noizean bein aitak eramaten zuen bere lanetako bat egiten zuen bitartean. Bere aitak, baserrian asi, gero itxasoan eta azkenik gaseko pabrikan lan egin zuen, ezkondu eta gero, amak, bera legorrekoa izanik, orrela eskatuta, itxasoa arriskutsua eta tristea zelako.

Esan bezala, dio aitonak:

● Nire aitak gaseko parolak pizteko lanean batzuetan berarekin eramaten ninduen. Azkar-azkar ibiltzen zen, eta eskutik elduta aidean eramaten ninduen, bere lana atzeratu ez zedin. Eta orrela illunabarrean egunoro parolak piztu eta bidargia sortzen zuen. Eta gero egunsentian, berriro itzaltzeko. Eta nire ustez parol aiek nire aitarenak ziren.

- Eta bein batean sendikoek esanda auxe gertatu omen zitzaidan. Mutikotxo bat, parol bati elduta omen zegoen eta nik esan omen nioen: " Quita, quita que ese parol es de mi padre"

● Eskolan saiatu xamarra omen nintzen eta amalau urte nituenerako, lanean ere asia nintzen Banku batean, enkarguak egiten. Eta beren biziko poza artu zuten nire guraso maieteek, ama Bixenta eta aita Luziok, biotzeko maiteak. Txirringa artuta gure iriburuko kaleetan zear ibiltzen nintzen. Orduan ez zegoen berebillen joan-etorri aundirik, eta eskuak patrikan sartuta, txirringa gaiñean, kaleetan barrena, Bankuak bezeroei bidalitako eskutitzak eta kontuen azalpenak banatzen, e.a.

Nire lantokian, berrogeita bost urtez jardun nintzen. Sar saria artu nuen arte. Bitarte orretan maillan gora egin nuen noski, eta zuzendaritza maillara ere iritxi nintzen. Eta azken orretan, orrela, ogeitabost urtez.

2. MUNDU ONETAKO GURE BIZITZA.

Penetan edo kantari...

● Leen esan bezala, berrogeita bost urtez lantegian, Bankuan. Lenengo urte aietatik, nire gogoanean latzenak, ume bat izanik, lankideetan, eldutan, baziren gaztetxoak sailburuaren aurka jartzen zituztenak. Beren gorrotoa eta lañeza besterengan pìztutzea naita. Gaiñontzean oso oroitzapen onak dauzkat, nire lantegiaz. Azi eta ezi an egin bait nintzen, umetandik gizon izaterañoko orretan. Eta nire lan ori benetan maite izan nuen. Garai artako, euskerarenak, berriz, negargura dakarkit. Onatx adibide batzuk:

● Garai aietan, euskera gutxitzat jotzen zen gure iriburuan. Eta lantokian, ere norbaitek esan zidan, euskera ori ondo zegoela etxean eta, itz egiteko, baiña itxura txarra ematen zuela, berezoen aurrean, euskera "ori" erabiltzea. Alegia, bezeroen aurrean gaztelera bear zuela. Jantziago izanik. Bere ustez... Zenbateraiñoko "jakituria" zuen ark! Orduan, ordea, orrela ziren gauzak.

● Gure erri eta iriburuetan badira, gure Zumalakarregi ospetsuaren, kale eta etorbide izenekoak. Bein batean, ez dakit nor zen bati, erdaldun utsa eta ezjakiña noski, berak bere buruaz uste osoa bazuen ere, auxe entzun nion:

" Hay que ver, qué nombre para una calle: "Zumalakarregi". Yo si quisiera insultarle a una persona, le diría: " Ud. Es un zumalacarregui"

● Esan bezala, orrela ziren gauzak orain irurogei urte eta geiago, gure ama izkuntzaren inguruan. Euskaldunaren nekeak bere jaioterrian. Gure baserrietan, medikua etorri bear zuela eta, gaixo zegoenaren kezka: " euskeraz bai al daki?"

● Euskaldunari irriparra. Erderaz gutxi zekielako ... Orduan gure iriburuan, askok bertan jaioak izanik ere, ori egiten zuten, irriparra, euskal peto-petoaren aurrean. Eta " boronos eta caseros" son muy desconfiados" esaten somatzen genituen. Ez dago amaren umerik bere guraso eta sorterria maite ez duenik. Ez luke izan bear beintzat. Eta nor bakoitzari begirunea bear zaio bere nortasunean, eta ez da bidezko iñoren biotz barrua urratzea ori dela eta. Guk geureari eutsi nai izate orretan ezin ulertuak ere gertatzen zaizkigu, ordea, askorengan. Au duk arraioa!!!!! Barne miña sortzen didate gertaera oriek, eta bertsotan azalduko dizuet, gure mintzaerarekin dudan atxikimendua azalduz.

Billobatxoak, erne-erne dituela aitonak, buru-belarri entzuteko prest daude.

GURE MINTZAIRA

1.-

Bertsotan gai polita
gure mintzaera,
izkuntzak ematen dit
gaurkoan aukera..
Gurasoen izkuntza
zu gure euskera!
euskal nortasunaren
agiria zera.

2.-

Gurasoen izkuntza
ain zera aberatsa!
aditz jokoa eta
iztegi zeatza.
Zazpi euskalki eta
gozo ta aratza,
zazpi lurralde eta
bat gure arnasa.

3.-

Gure euskalkietan
bat da bizkaiera,
Erronkarikoa ta
baita lapurtera.
Bi Nafarroak ditu,
eta zuberera,
zazpigarrena osatuz
dugu gipuzkera.

4.-

Euskalkiak leenaren
mintzoa dakarte,
aztertzaile sakona
or bai Bonaparte!
Euskalkien zer ori
dena jakin arte,
Or jardun zen printzea
gogoz ainbat urte.

5.-

Printze ura bezala,
Mogel, Etxepare,
Axular, Mendiburu,
Etxahun aaztu gabe.
A zer! lorategia
euskalkien jabe,
orien inguruan
ainbat euskaltzale.

● Beraz, or azaltzea nai izen dudana, batez ere, gizon jakintsuak ere, izkuntzen ubibertsoan murgildurik, zer nolako arrimenarekin, eman zioten, tartea, bere jakintasunetik, euskeraren aberastasunari, dagokion garrantzia azalduz, kultura edo jakintza maillan ere. Eta kontuan izanik, batez ere, noiztik eta nola sortua dugun gure mintzaira, euskera, azaldu gabea dugula oraindik.

Ipuin onetan orixe adierazi du gure aitonak, billobatxuen aurrean. Eta gero onela jarraitzen du:

Aitonak onela jarraitzen du:

● Izkuntzalari ospetsu geiago azalduz, euskerari tartea beren jardunean, eman ziotenak aipa ditzadan bide batez onako auek: Humboldt Wilhelm Von alemaniarra. Berlineko Unibertsidadea sortu zuena 1810ean. Mogel eta Astarloaren laguna. Schuchardt. Eta gertuagotik, Antonio Tovar, Menendez Pidal, Fernando Lázaro Carreter, e.a.

Gure Resurreción Mª de Azkue, aundia. Iztegi aundi eta onaren egillea, ordegaillurik ez zegoenean. Gaurko iztegigilleek, gure uste apalez, ark egindako lanari asko zor diote.

Eta zer esanik ez, Manuel Lekuona eta Lino Akesolo, beste bi aipatzeagatik. Beren apaiz lanez gain, bere bizimodu osoa eman zioten euskerari, goi jakintza maillatik. Eta zer ikusi aundia izan zutenak, Euskerazaintza Euskeraren Erri-Akademia sortzearekin. Txorakeri asko entzun ziren eta bear bada, oraindik ere, entzungo dituzue -billobatxo maiteok,- jarraitzen du esaten gure ipuin onetako aitonak- " euskera batua" dela eta, Euskerazaintzari buruz.

Azken batean, denborak, epaile goren orrek arrazoi osoa eman die Euskerazaintzakoei. "Euskera urbano eta funtzionalaren " ostean, ori bertan beera utzita, gaur gipuzkera nagusitu dute, izena aldatu diote ordea, orain gipuzkera "euskera batua" da. Utz dezadan gai au gaurkoz ez dut nire kontakuzinaren gaia eta.

Eta labur zurrean tarte oni dagokiona, bukatzeko, nola aipatu gabe utzi? Larramendi eta Astarloa ospetsuak!!!

Eta azken bi auen izenak, bertso zaar bat gogora dakarkidate- dio aitonak- Onela da:

Gure euskera eder maitea
galtzen gaur degu ikusten,
euskaldun onak arritzeko da,
nola ez diran lotsatzen!!!
Larramendi ta Astarloarik
ez dira ere aipatzen,
ez dago uts egin aundiagorik
ondo badegu pentsatzen.



● Saia zaitezte, billobatxo maiteok, euskera geureari eusten. Guk izan ez genituen aukerak badauzkazue gaur egun, ikastoletan eta baita ere ikastetxe nagusietan.

3. ZAARTZAROKO GOGOETAK.

Eta ondoren onela jarraitzan du aitonak:

Mundu onetako gure bizitza, penetan edo kantari……

● Aurrera joan da gaurko nire kontakizuna, eta bidea egin aala,

kanta zaar polit au ere badatorkit gogora orain nire zaartzaroan, zuen aitona biurtu naizelarik, billoba maiteok:

"Eguzkia asten da.
jaitsitzen jaitsitzen,
dizdizera ederra
zaiola gutxitzen.
Diamantezko printzak
zaizkanean galtzen
urrezko bola baten
Itxura du artzen,
eta geldi-geldik da
itsasora sartzen"

Mundu onetako izaera, berdin-berdin, orrelaxekoa da… jaitsiten-jaitsitzen……

● Bidargia aipatzen ari natzaizue. Jesukristoren bitartez, pekatuen barkamena ere orrela da. Ara or Fedea, eta Betiko bizitzaren itxaropena, bidargia dugularik. Eta guztiaren eragille, Ebanjelioa mundu onetan bidargia da. Eta eginkizun orietan gure erritar bat aparta: San Inaziogure Patroi Aundia- Loiolako Iñigo. Beko illuntasunetik Goiko Argi distiratsuenetakoa biurtzeraiño. Ara or: Kristautasunaren aukera ……!!!!!!!!

● Nire zaartzaroan, bide bukaeran abiatua naiz. Eta badut bidargia. Eta bidargian, topo: Gurutz-bideak. Pozak eta nekeak. Maitetasuna eta gorrotoa . Fedea eta nekea. Itxaropena eta etsia. Beraz, mundu onetako gure bizitza, penetan edo kantari, berriz diot.

Aipatutako gasaren argi apal ori Goiko argiarekin lotzen saiatu naiz. Eguzkia baiño lilluratsuagoa dena, Jainko Argia dugu. Zaarraren azken itxaropena mundu onetan…… Mundu onetako argia gero eta zurbillagoa duelarik. Eta bide latza, aldapatsua zaarrarena alde askotatik,Goiko bidargiak errazten duena. Eta laburbilduz, bukatzeko: Ebanjelioa edo Berri Ona dugu ain zuzen mundu onetarako Bidargia, betiko bizitzaren ibil aldian.

● Ontan bukatzen dut, billoba maiteok, gaurko nire kontakizuna. Eta nire bertso zaar batekin.

Barne muiñetan euskerak deika
egiña dut gaur jarduna;
biotz-begiak goruntz begira,
goian guztion Aalduna.
Arbaso zaarrak an dira baiña
dantzut beren oiartzuna,
aien mintzoa barnean bait dut,
orrela naiz **EUSKALDUNA**.

Txaloak ……!!!!!!!!

MOROAK ETA EUSKALDUNAK

Zenon Uriguen aitak baturiko bertso zarrak eta doñuak

Gerra makur egiñez
bultzada batean
Moroak buruzagi
Granada kortean.
Asko geiendu ziran
Zazpireun urtean
Euskal odolarekin
kutsatu artean.

Moro beltza zelarik
Españian nausi
Nabasen Euskaldunak
egin zion jauzi.
Euren kate gogorrak
an gintuzen autsi
eta il etziranak
beldurrez iesi.

Orduan gure aurka
oiuz zeuden oro
gure lurretan jabe
Euskalduna bego.
Frantziak, Españiak
bai orain bai gero
gure erriari beti
lotsa izan bearko.

Ez bada euskalduna
leen bezin aundi
lotsarik izan gabe
leial bizi bedi.
Odololez eta fedez
beti berdin garbi
ekin ta eutsi zintzo
Euskera zaarrari.

Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan ? (II)

1. ZATIAN.

Egillea´ren aurkezpena.

Liburu onen egillea, Berd eta Mortorell´tar Gabriel da, eta nik bere bizitzari buruz dakidanaren aurkezpena auxe da:

1.955´eko urtean Baleares ugarteko -lurraldeetan Mallorka´ko Montuiri errian jaio zala.

Eta txangolaritzaren antolaketatik lortzen ebala beren bizitzazko ogi-bidea.

Berd baiña, ez da edozelako gizona, bere ogibidearen lanez gaiñ, bere erriko edestian illunetan geratzen ziran ezaukizunak(1) argitzen, andiak izan diralako emankortasunezko 10 urte luze alditan emon dauzanak, ikerketaren bidez.

"CRISTOBAL COLON, ERA NOBLE Y DE SANGRE REAL" da bere lan aundi au, 1.989´ko urtean argitaratu ebana lenengo irarkaldian, eta 1.992´ko Epaillan bigarrena.

Berak erabili bear ebazan liburuaren kopurua edo bibliografia, bere orrialdeko zerrendan etorriko da, konturatu gaitezen, ibili bear izan eben denbora bear izan ebela, lan andia izan

dalako berak ikertzaille lez azterkatu egin dauana, erandoki edo mosaiku(2) ori osatzen dabezan arrazoizko zati orreik(3) bere tokietan ipinteko.

Zetan ezanik bez, Euskalerriak zor aundiak daukazala Gabriel´ekin, bere erriaren edestia argituz gain, gure erriaren edestiko antzezlari nagusien ostonduta egon diran bizitzak be, argira agertu dabezalako.

Oarra.

Lan onen asmoa, ez da Berd ta Martorell´tar Gabriel´ek ikaragarrizko ikertzail lan bidetik idatzi dauan "Cristobal Colon era Noble y de sangre real" liburu berbera ataratea.

Ez.

(1) Ezaukizunak = ezaun-bearrezkoak. (2) Erandoki edo mosaiku = mosaiko. (3) Arrazoizko zati orreik = razones con las que completar el jeroguifliko, o, mosaiko racional de èsta història.

Nire asmoa Euskal edestiari buruz alango lan bikaiñaren aurrean, Euskalerrian ezagutzea da, euskaldunak gero ta geiago arduratu gaitezen gure etxeko gauzakaz eta konturatu beiñ eta betiko, gure arbasoen bidetik oiñarri lez, sustraituta gagozela daukagun berezitasunaren nortasunezko izaeran.

Zor aundiak daukaguz JAUNGOIKO eta gure ARBASOEKIN, euskal baitaren ekandu eta orokorrean erri lez, jendekuntzazko itxura eder onen oiñarrietan erperatuta agertzen garelako, eta bereztasundutako mundu onetan gure txandako bizitzan zorrezkubidetatik sortzen jakuzan antolazko zeregiñak, euren eta beti izan bear dan ekanduzko demokraziaren lege ederrean ordezkatu bear doguzela, danok Jaungoikoaren lege zarrak aginduten daben lez, askatasunezko demokrazi zabal ta baketsu baten bizi gaitezan.

Gure Euskalerri maite onek bere ekanduzko izaeran, askatasunezko demokraziaren nortasunezkoa izatearren, ainbat etsai fazizta daukoz, Jainkoak bereztutako gai oneri ezarri eutsozan legeari jaramon egin barik, eurak euren asmotan indarrez ezartzen dabezan batzango legeetan gure dabelako gu bizitzea.

Ezinezkoa da baiña, ekintzazko asmo ori, Jaungoikoak Gai-Ludi(1) oneri bereztu eutsozan lege guztien aurkakoa dalako.

Orregaitik gaitzesgarri eta nazkagarriak egiten jakuz, maltzurrezko guzurti orrein ainbeste kaizarkeriaren batzangotasunezko alegiñak, asperbidezkoak(2) izan da, aspergarriak(3) be ba-diralako.

Faziztentzat ez alderantziz, bizitz onen ordezkaritzazko gai-tresneri guztiak euren esku artean eukiten alegintzen diralako, gero indarrezko ekintzaren elburuakin ibilteko asmoan.

Arrigarria da baiña, euren bizitzaren il osteko itxaropenari, iñundik iñora begitu barik egiten dabezala, egiten dabezan gauza guztiak.

Egalper edo ostruka´ren buru ostonduarena egiten ote dabe, asmatu daben diruzko sasi-jaun estalkiagaz ?.

Ba ote dago JAUNGOIKORIK eurentzat ?.

Eurentzat nire ustez, diruzko irudimemenean urrezko-tzekorragaz, lillura(4) edo ta atsegintasunaren distiadurazko bidetik(5), erakarpenezko zirikada aundiak daukiezala, beren menpetasunaren zoraldizko eragipenetik ain errez urteteko.

(1) Gai-Ludi au = este universo material-naturalizado. (2) Asperbidezkoa = vindicativo, defensivo. (3) Aspergarria = fastidioso, gravoso, importuno, pesado, molesto, vengable. (4) Lillura = delirio, vèrtigo, mareo, bahido, desmayo. (5) Distiadura = fulgor, brillo, resplandor, esplendor.

Orregaitik nire ezkerron aundienak Berd eta Martorell´tar Gabriel´eri, bere lan aundi onegaz, politika maillan ostondu gure izan daben gauza bateri, gauza izan dalako euki dauan mozorrotasunezko estalkia kendu ta argitara zabaldu, berezko arrazoi bidez gertatu zirenak argitasun ederrenean ikusi daiguzan.

Idaz lan onen aurkezpena.

Lan onen esangura andienak nire aldetik, Mallorkako Berd eta Martorell´tar Gabriel´ek idatzi dauan CRISTOBAL COLON ERA NOBLE Y DE SANGRE REAL´eko liburutik artutakoak izango dira.

Berak, liburuaren aurkezpenean esaten dauan lez: "La màs documentada y sòlida refutación que de la tan interesada "Tesis Genovesa", se haya presentado jamàs".

Eta nire aldetik erabilitako billakuntzazko liburuak, aurkibideko zerrendan etorriko dira.

Zergaitik?

Beren bibliografian esaten dauan lez, edo ta liburu askotatik iker lanean, galdeketa askoegin ondoren, nire ustez argitasun aundienak emon dautsazelako Kolonen leiñu eta beren izatezko nortasunari.

A ta gusti, liburu onen esangurak ulertzeko, XV-XVIn gizaldiaren denborako bizitzan kokatu bear dira, emen esaten dodazanak orduko denborakuak izanez gain, bereztasunaren zentzuzko arrazoian argi ta egi urbillenean kokatu gaitezen, benetan jakiteko zelan zaintzen ziran giza eskubideak orduko denboretan.

Zelan bizi ziran orduko errege, eleiztar, andiki ta erritarrak, bizi-

tzarako eukezan legezko baldintzakin, eta zelango legeak izan ziran areik ?.

Bigarren baldintzari ebatuta: Legezko Araudia.

Paleolitiko-Neolitiko aldian lortuta, demokraziaren zentzuzko lege andi baten ezarrita etorten zan mundu onen errigizartetasuna, ekialdetik Sargonidakaz, goitik berako kaizar menpeko agintaritza baten ipini gurean asi ziran arte.

K.a. 490eko urtean Maratonen medikaseko borrokarekin Grezitarrak, persiarrak Europara ekarri ebezan menperatzaillezko asmoak geratu ebazan.

Arno ta Tiber ibai bitartean baiña, K.a. 753tik, Etruskoak kokatuta egon ziran lekuan, euren salerosteko mozkiñak merkantilkerien zabaltasunezko lurretan kokatu ta eurak ondo apaindutako kirkillerietan bizi ta sortzen ebezan Uriak lapurretatik babesteko:

-Espartar antzeko gudalozteak Latin izkuntzagaz sortu ondoren, naita Etruskoen gogoak menperatzailletasunezkoak ez izan arren, eta sortu eben gudaloztearenak be bardiñ, laster okertu ziran goitik berako agintaritzara eta Europa, Afrika ta Ekialdeko erri geienak menperatu ebezan, K.o. 409ko urtean Mendebaleko kaizartza ezereztu zan arte.

Blaustada ori sortu orduko baiña, I Konstatinok jakinda, euren asmo indarretan berantza joan zirela, I Silbestre Aita Santuagaz alkartuta K.o. 325ko urtean Nizean Eleiz Batzar Nagusia ospatu eben, ta Kristautasuna Katolikosunezko eritzian alderdikidetu ondoren, ortik aurrera emoten jako indarra zoritxarrez kaizartzazko agintaritzari ostera, gure gizarteko eskubideen antolakuntza, menperatzailletasunezko fazizta indarpean iraun egian.

Orregaitik IVn gizalditik aurrera, Jesuse´k Bere aolkularitzazko bidetik ta Berezko legetik sortzen eban Kristau eritzizko zentzu ta izatasunak, eleiztar agintaritzaren ardurazko aldetik bigarren maillara baztartu ondoren, katolikotasunaren erromatar ziñezkintza ipini eben orduko Europa ta muduaren legezko ardatz nagusi lez, berak eukezan menpeko estutasun eta zigorrezko lege inguruan danak jantzan ibili bear izan da.

Afrika, Ekialdea eta Europako giro bizitzak ez ziralako bardiñak izan, eta mendeko lege bardin bat danentzat ez zalako egokiena, menperatzaillezko eritzi orrek laster euki eban, bear eben erantzuna eta Islan´dar erlijioa mauritarak sortu eben.

VIIIn gizaldiko asieran moroak Erdi-Ugarte(1) onetara etorri ziranetik ta IX-Xn gizaldiko epean bertan ezarri, bertoko errigizarteak, paregabeko aukera baten aurkitu ziran, danak euren antola egokienak eginda, bereztasunezko zentzu egokitasunean ezarri zitezen.

Euskalerriko antolamenduak baiña errege jaunakin itzarmenezko ongunde demokratikoak euki arren, Leon´goak Pelayoren bitartez (?), godoak euki eben erromatar menperatzaille ta fazizta´tar kaizertzan ezarrita geratu ziran.

Eta Europa guztian gertatu zan lez, bata askatasunaren demokrazizkoa zalako, ta bestea askatasunaren nortasunezko eritzi orreik galduta euki zituzelako, biak katolikotasunaren batzangotasunezko asmakuntz orren aolkularitzapean geratu ziran lotuta, eta bide orretatik erri guztiak mendeko premiñara(2) bideratuz, gaur daukaguzan laterriakaz aurrera joanda, merkantilismo ta diru serbitzu edo morroiketara sortzen jakun lez.

(1) Erdi-Ugarte = peninsula. (2) Premiñakin = necesidad, obligaciòn, fuerza, precisiòn.

Europa eta munduko gizarteetan ortik aurrera, faziztaren indar aundi orreik erlijiñoakaz nastuta, eta danon dirua zaletasunezko guda-griñean bortxatzeko leku egokienetan ezarrita, maltzur ta guzurrezko bizi ekintza baten gaiñean ezarrita gagoz urten ezinik.

Europa ta peninsula onetako bizia, egia ta guzurraren aolkularitzazko naste orreitan, odoljariozko borroka baten etorten zala, XIn gizaldian sortu ziran Gaztela eta Aragoiko erregetzak, IIIn Santxo Garzez Aundiak Nafarroako erregetzari lotuta egon ziran lur oiek, banandu ebazalako bere semeen artean.

Gero, XIV-XVn gizaldietan Aragoiko erreñuari, Kataluña, Balentzia eta Baleareseko ugarteak egokitu jakozan.

- Aragoiko IIn eta Gaztelako Vn Fernando 1.516an il zanetik, Gaztela, Leon, Asturias, Galizia, eta moruei kendu eutsezan ego aldeko lur guztiak, ondorioz Alemania´ko Vn eta Gaztelako I Karlos´en eskuetara joan ba ziran be.

-Euskalerriko lurraldeetan, nai Nafarroako erregetza Gaztelatarren edo ta Aragoien(1) guda-legeagaz menperatuta egon, Gipuzkoa ta Arabako lurraldeak ongunez Gaztelatarrekin, eta askatasunezko legean bizi zan Bizkaiko Jauntzagaz batera, laurak euskal nortasunaren barneko oituran euki ebazan askatasunezko Eleiz Aurreko Batzar jabetzapean bizi ziran.

Errigizartearen izaerazko oitura demokratiko lez, Euskalerrian itzarmen bidez aukeratzen ziran antolatzaillezko agintariak, euskal batzarpeko errege-jaun demokratikoak euki ebazan, eta Aragoi ta Gaztelako erreiñuak sortuta, Asturias ta Leongo erromatar erreiñu katolikoak euki ebazan goitik

berako kaizar agintaritzan ezarri ziran lez, Euskal-Baitaren oiturazko-demokrazitik kanpo geratu ziran.

Eta Europako erretan ekintza orren bidez, Mendebal eta Ekialdeko erregetza guztiak, bai ta Euskalerrian egon ziran errege-jauntzak, katolikotasunaren ziñezkintzapean guztiz lotuta eta errege-erregiñ guztiak senidetuta agertu ziran.

Orduko erregearen garrantzidunak ziran epaiketazko zeregiñak edo ta antolamenduzko ardurak, katolikotasunaren eritzizko legepean betetea zan.

-XV-XVIn gizaldietara eldu giñanean baiña, eta agertu ziran aurrerakuntzakaz, erregeak, euren orokorrezko agintaritza lortu gurean asi ziran, eta lenagotik lapurketan egiteko euki ebezan maltzurrezko trikimailluak sendotuz, ekanduaren maldaberazko guzur bideak ezin besterarte zabalduz ebezan.

Atutxa´tar Paul

Zornotzan 2.015´ean Urtarrilla´ren 19´an

(1) Nafarroa norentzat menperatu eban, Aragoiko IIn Fernando katolikuak ?.

Euskaldun barrientzat

ikasten

Zazpi utsak

Sudoku

5			6	7	8			1
					3	6		
	8	2	5			7		
1	5		4		2	8		9
4								2
2		8	9		7		4	9
		9			4	1	9	
		5	1					
3			7	2	6			5

5	4	3	6	7	8	2	9	1
9	7	1	2	4	3	6	5	8
6	8	2	5	9	1	7	3	4
1	5	6	4	3	2	8	7	9
4	9	7	8	6	5	3	1	2
2	3	8	9	1	7	5	4	6
8	2	9	3	5	4	1	6	7
7	6	5	1	8	9	4	2	3
3	1	4	7	2	6	9	8	5

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

.....tar .....

..... kalean (auzoan.....zenbakian

.....errian, ...errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko .....diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□□□ zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.



Artillero dale fuego
ezkontzen zaigula pastelero.
Eta zeinekin? eta norekin?
Orpo zikinaren alabakin.

Orpo zikin, gona luze
atzeko-aldeko erregidore.
Jotzen zioten tarrapatatan,
zergatik neskatxa zatarra zan.

Orpo zikin, gona luze
kaleko loiaren erregidore.
Deitzen zioten zarran zan zan zan,
zergatik neskatxa zatarra zan.

Elantxobe